

UDAL BERDINTASUN KONTSEILUA

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna dela-eta Berdintasun Kontseiluak hitzaldia eta pelikula antolatu ditu

■ Bihar da 'Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna' ■ 'Familia Barruko Indarkeria' hitzaldia izango da bihar 18:00etan Biterin ■ 'Solo mia' pelikula botako dute etzi Biterin 19:30etan.

BIHAR azaroaren 25ean *Emakumearen aurkako indarkeria desagerrarazteko eguna* da eta Berdintasun Sailak Berdintasun Kontseiluarekin batean hainbat aktibitate antolatu ditu. Bihar arratsaldeko 18:00etan *Familia Barruko Indarkeria hitzaldia* izango da Biteri Kultur Etxean. Hitzariak izango dira Mertxe Arza Nabarro eta Olga Beortegi Martinez, Nafarro-

ako Gobernuak akajida etxeren arduradunak, eta Hernaniko Udaleko Gizarte laguntzailea. Asteazkenean, azaroaren 26an, *Solo mia* pelikula botako dute arratsaldeko 19:30etan Biterin.

Tratu txarrak gizarte matxistaren ondorio
Berdintasun Kontseiluak egun honen inguruan zabaldu duen mezuan adierazi du emaku-

meen aurkako eraso fisiko, psikiko eta sexualak ezin direla gertaera isolatu bezela kontsideratu, baizik eta, emakumeek gizarte matxistaren ondorioz jasaten duten zapalaketaren beste adierazgarri bat dela tratu txarra.

Tratu txarrak jaso ezker
Tratu txarrak jasotzen badira konfindatzazko norbaitengana jo eta laguntza eskatu daiteke.

Anbulategi edo Ospitalera joan daiteke lesio psikiko edo fisikoak begiratzeko. Foru Aldundiko eta Ongintzako Gizarte Zerbitzuetara ere joan daiteke eta bertan dohainik eskura daiteke laguntza juridikoa, psikologoa, babes etxeak, eta abar. Udaltzaingora (943-337000), Ertzantzara (943-332500) edota Larrialdietara (112) deitu daiteke baita ere. □

Nere Borda parkea gaur zabalduko dute

NERE Borda parke botanikoa gaur zabalduko dute, goizeko 11:00etan egingo den inaugurazio ekitaldiarekin. Nere Borda txukuntzen 2 urte daramazki Udalak eta orain prest dago jendeari erakusteko. 5.700 m²ko azalera eta 63 landare eta zuhaitz espezie dituen parkea da. □

BERTSOLARI TXAPELKETA

Zelaiak finalerako aukera

ATZO jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren final erdia. Ekaitz Goikoetxeak irabazi zuen eta zuzenean finalera pasako da. Iñaki Zelaiak hirugarren gelditu zen 474 punturekin, eta badu finalerako aukera. Azken final erdia datorren igandean da Tolosan. □

■ ERRUGBIA

Hernanik Getxori irabazi

HERNANI A-k atzo jokatu zuen partidua Getxoren kontra eta irabazi egin zuen 25 eta 7. Hernaniarrak oso ondo dijoaz. Sailkapenean lehengo postuan daude bost partidutatik bost irabazita. □

Bildu Hernanik bilera gaur, Auzo Elkarteekin

BILDU Hernani taldeak bilerak egingo ditu aste honetan Hernaniko taldeekin, Udal politika eta 2004ko Aurrekontuei buruz hitz egiteko. Gaur Auzo Elkarteekin du bilera, 20:00etan Biterin eta bihar Kultura eta Euskera munduko taldeekin, 20:00etan Larramendi 11-ko lokaletan. Herritar guztiak ere deituta daude bileretara. □

Hirigintza Batzordea gaur

GAUR hiru puntu: Akarregi poligonon pabeiloia eraikitze eskara; Epele poligonoko delimitazioa onartzea, eta Epele poligonoko konpensazio proiektua onartzea. 18:00etan Udaletxean. □

Gorengoak 1-0 irabazi, penaltiz sartutako golari esker

HERNANIK 1-0 irabazi zion atzo Beti Gazte taldeari, Blanchek penaltiz sartutako gol bati esker. Hernaniarrek itxura ona eman zuten partiduan zehar, eta badirudi ari direla hobetzen denboraldi hasierako ratxa txarra.

Emakumezkoen ligan 1-1

Hernanik 1-1 berdindu zuen atzo Emakumezkoen ligan, Amaiak Bat taldearen kontra. Hernaniarrak irabazten hasi ziren eta dudako penalti baten erruz berdindu zuten debatarrek. □



Hernaniarrak defentsan, Beti Gazte taldeak ateratako kórner batean.



Xalapartako direktiba, sagardogile saritua eta bertsolariak.

Xalapartako sagardo lehiaketan Eizmendi txapeladun

LARUNBAT gauean izan zen Xalapartako 10garren sagardo lehiaketa eta Eizmendik eraman zuen txapela 1.141 punturekin. Bigarrena Alberro izan zen 1.088 punturekin eta hirugarrena Eula 1.033 punturekin. Txapelketako jurado lana afaltzera joan ziren 80 lagunak egin zuten eta giro ederrean probatu zituzten lehiantezen 10 sagardoak. □

Ibai-mendi
Marka onenak dauzkagu:
TRANGO
TERNUA
COLUMBIA
THE NORTH FACE
SALOMON
BOREAL
TUCKLAND
KAMET
CHIRUCA
Nafar kalea 24 - 943 333724 - Hernani | Nagusia 18 - 943 590372 - Andoain

BIKAIN AKADEMIA
abenduaren 1ean zabalduko dugu

- Talde txikiak
- Arreta pertsonala
- Ordutegi malgua
- Kurtso guztiak
 - Lehen eta bigarren hezkuntza
 - Batxillerra
 - Unibertsitatea

Zure ikasketatan lagunduko dizugu
Kardaberaz, 56-58 behe B
626 68 38 96 / 679 66 41 81

TXIMELETA OPARIAK
Txirrita 10 - 943 55 23 95

Zure erosketagatik Gabonetako Loteriako 36.599 zenbakiko partizipazioa opari

Hernaniko kronikako laguntzaile:

ORAUÑE PROMOZIOAK



Hernaniko igerilariak, proba hasi aurretik. 35 hernaniar izan ziren larunbateko proban.

140 igerilari bildu ziren larunbatean Hernanin

LARUNBATEAN Igeriketa proba jokatu zen Hernanin, Neguko ligaren barruan. Lau taldetako igerilariak aritu ziren probak egiten eta ikuskizun polita eman zuten Hernanin.

niko igerilekuan. Bidasoa, Igarondo, Ordizia eta Hernani taldeetako 140 igerilari elkar-tu ziren Hernaniko kiroldegian, Neguko ligan normala den bezala, hemendik aurrerako

konpetizioak ahalik eta txukun-
nen prestatu nahian. Hernaniko 35 igerilari hartu zuten parte proban eta taldearen maila ona agerian utzi zuten behin baino gehiagotan. □



Giro ederra Txantxangorri, San Huberto eguneko afarian. Txantxangorri elkartean urteroko afaria egin zuten ostiralean, San Huberto eguna ospatzeko. Afaritan 70 lagun inguru bildu ziren eta giro ederrean egon ziren afari legea egiten. □

KIROLA		ASTE BURUKO EMAITZAK	
FUTBOLA	Taldeak	ERRUGBIA	PELOTA
Gor.	Hernani B et G azte	LN az.	Getxo-Hernani
Em a.	Am akak Bat-Hernani	EusL	U.C Cantabria-Hernani
Gaz.1	Am akak Bat-Hernani	Jub	A tlet-Hernani-Ordizia
Kad. O.h.	Touring-Hernani	Kad	Hernani A tletko SS
Kad.1	Hernani Ekintza	Inf	Hernani A tletko SS
Haur O.h.	Hernani Urola	A le	Hernani B eta Bera
Haur 1	Astiznagako-Hernani	SASKIBALOA	BOLEIBOLA
WATERPOLOA		EusL	Hernani-Zarautz
EusL.	Hernani A-Hernani B		

Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero **kronika** dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

☎ 943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbietan), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)

■ HITZ BITAN

✓ DONOSTIAKO MARATOIA

Eba Esnaola hirugarren, gipuzkoarretan.

Eba Esnaola hernaniarrak emakume gipuzkoarretan hirugarren postua lortu zuen atzo jokatu zen Donostiako Maratoian. Esnaolak 3 ordu eta 16 minutu behar izan zituen 42 kilometro eta 195 metroak osatzeko. Peter Korirrek irabazi zuen gizonetakoetan eta Remedios Alonsok emakumeetan.



Eba Esnaola.

✓ WATERPOLOA

Derbya Hernani Aren alde. Hernani Ak 13-3 irabazi zion atzo Hernani Bri, Hernaniko igerilekuan jokaturako partiduan. Hernani A nagusi izan zen ia partidu guztian baina, Hernani Bk ere izan zituen momentu on askoak, 3garren laurden aldera.

✓ BOLEIBOLA

Neskek galdu Getxon, eta mutilek irabazi Sestaoren kontra. Nesken taldea azken partidua ezin irabazirik aritu da eta igandean ere Getxoko Aixerrrotaren kontra galdu egin zuen 3 eta 0. Mutilek atzo izan zuten partidua Hernanin bertan, Trueba Sestaoren kontra eta irabazi egin zuten 3 eta 1.

✓ SASKIBALOA

Hernanik justu-justu galdu Zarautzen kontra. Hernaniko saskibaloitza taldeak 45-51 galdu zuen atzo Zarautz taldearen kontra. Bi taldeek ere itxura polita eman zuten atzoko partiduan, eta azken momentura arte berdinean joan baziren ere, zarautzarrek asmatu zuten partidua errematatzen. □

† ANTONI ARTOLA EIZMENDI

ANDREA
(ANJEL JALONEN ALARGUNA)

Atzo hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Haren seme-alabak: Juan Mari Jalon, Joxe Mari Jalon eta Mari Carmen Cuartero, Maria Luisa Jalon eta Martin Aranburu; senideak, bilobak, ilobak, lehengusuak eta gainerrako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela, GAUR, ASTELEHENA 24an, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JUAN BAUTISTA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko azaroaren 24an

Helbidea: Hernaniko Santa Maria Magdalena Egoitza



IRAGARKI MERKEAK

Furgoneta salgai. Renault Traffic-a. Interesatuak: 943 550317

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebra, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☎ Taxiak:
943 550093
☎ Udaltzaingoa:
943 333288
☎ DYA:
943 464622
☎ Anbulatorioa:
943 006666
☎ Jokalari anonimoak:
943 331103

✚ FARMAZIAK

ASTELEHENA

☎ Egunez: Correa
Perkaiztegi 8
☎ 943 551933

☎ Gaez: Urbistondo
Lasarte. S.Francisco 1B
☎ 943 366567

ASTEARTEA

☎ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077

☎ Gaez: Iturralde
Usurbil. Poligono 13, 9
☎ 943 363395



Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsorok Okindegia, S.L

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI